



Irakurzaletasuna erein eta ureztatu

Iritsi da ikastetxeetara Haur Literatura Aretoa. Aurten ere, hainbat jarduera antolatu ditugu lehen hezkuntzako ikasleen artean irakurzaletasuna sustatzeko. Ipuin kontalari lanetan Saroa Bikandi arituko da; sormen tailerra dinamizatzen, berriz, Peru Magdalena

Zer daukazue prest aurtengo ekitaldirako?

Ipuin kontaketa baino jolas berezi bat txertatu dugu, kontatutako ipuinetan haurrak partaide bilakatu eta jolasean murgiltzeko. Sormen tailerrari dagokionez, bere burua fikziora eroateko jolas bat proposatu diogu haur bakoitzari, baita sormena lantzeko beste hainbat ariketa ere.

Nola ikusten dituzue haurrak? Pasatakoak pasata, halako saioak inoiz baino beharrezkoak direla uste duzue?

Egia esan, bai. Beti iruditzen zaizkigu gozagarriak bezain

beharrezkoak emankizun eta tailer hauek, umeen eguneroko errutina hautsi eta hain zere freskoa sortzen dutelako, baina, are gehiago, pasa duten itxialdia eta egoera ezatseginarene ondoren. Izan ere, errealitate gordinetik hegan ateratzeko hegoak ematen ditu literaturak.

Musukoaren atzean antzematen al dira emozioak?

Bai, antzematen dira, baina askoz ere gutxiago. Euren emozio guztiak ezin izaten ditugu irakurri, eta horrek hartu-emana eta pizgarritasuna mugatzen ditu.

Pandemia bete-betean ginela, bazirudien kultur ekitaldietara joateko gogoareago egin zela. Orain, joera horri eutsiko zaiola uste duzue?

Baietz uste dugu. Ekitaldietara joateko gogo nabaritzen dugu inguruan. Ea ba gose horri ganoraz erantzuten diogun denon artean.

Badago Euskal Herrian irakurzaletasunik?

Oso zaila egiten zaigu galdera horri erantzutea. Alde batetik, bada irakurzaletasuna zenbait esparrutan, ez guk nahiko gure bestekoa orokorrean, ordea. Gu biok

irakurzaletasuna ereiten eta ureztatzen saiatzen gara gure proiektuekin (hegoak.eus). Zertarako? Sakonago eta hobeto konektatzeko gure barrenekin, ondoko lagunekin eta inguratzen gaituen munduarekin.

Durangoko Azoka presentziala bueltatu da, gomendatuko diguzue haur literaturako argitalpen berriren bat?

Oso polita da, adibidez, Amaia Egidazuren *Dorotea*. Leire Bilbaok ere laster kaleratuko du beste liburu zoragarri bat: *Barruko hotsak eta beste soinu txiki batzuk*.

Bulego berrian egongo gara laster

Oktogonoan urtebete eman ostean, behin betiko kokalekua izango dugu: Intxaurrondo eraikina



2020ko udazkenean etorri ginen Okto-gonoa izenez ezaguna den eraikinera, Pinondo Etxearen egoera kaskarra dela-eta, Udalak eraikina hustea erabaki ostean. Urtebete eman dugu hemen, eta duela hilabete batzuk jakinarazi ziguten zein izango den gure lekua aurrerantzean: Intxaurrondo. Horrela deituko dio Udalak argazkian ikus daitekeen guneari. Helduentzako Hezkuntza Zentroa dagoen eraikinaren lehen pisuan

Leku berria bistarago dago, eta guneak erreferentzia hartzea espero dugu

hainbat elkarte egongo gara: Berbaro, JAED, Inurri Eskaut, Errotari talde mikologikoa, baita Udaleko bulego bat ere, batzar gela birekin batera.

Leku berria bistarago dago, eta guneak erreferentzia hartzea espero dugu, bertan elkarteak, udalaren bulegoa eta batzar gelak egotera. Modu horretan, Pinondo Etxean sortzen zen bizitasuna berreskuratzea espero dugu, horretara egon baikara ohituta urte luzeetan.

Hemen ere, betiko legez, atek zabalik eta zain izango gaituzue.

Biziber proiektua, sare sozialetan euskarazko edukiak lantzeko

Azkue Fundazioak antolatzen dituen Biziber saioak dinamizatu ditugu Durangaldeko zenbait herritan, baita Arratian ere. Saio horietan 11 eta 14 urte arteko gaztetxoekin Instagram, Twitch, Youtube, Tik-Tok eta gazteen artean boladan dauden antzeko sare sozialak landu ditugu. Bertara igotzen ditugun edukiei buruz hausnartu, eta, batez ere, euren euskarazko erabilerari erreparatu diogu. Dauden euskal erreferente apurrak ezagutu eta gaztetxoak euskaraz-

ko edukiak sortzera animatzea izan dugu helburu. Gure eskualdean, Durangon saio bi eta Elorrioren eta Berrizen saio bana egin ditugu, eta bakoitzera hamar bat gaztetxo bertaratu dira.

Berbarok lehen aldiz dinamizatu ditu sare sozialen erabileran eta horien euskarazko edukietan sakontzeko gaztetxoentzako saioak. Biziber lantegiak antolatzeko eskaintza jaso genuenean, aukera paregabea iruditu zitzaigun: ordaindutako pres-

takuntza lan bat egiteko aukera genuen, horrelako saio bat zerotik sortu eta gure hezitzaileak horretan trebatzeko. Modu horretan, bi hezitzaile saioak prestatzen aritu ziren (euretako bat Martxel, orain gurekin lanean hasi dena), eta gero saioak eman zituzten.

Balorazio ona egin dugu, nahiz eta lehen aldia izan. Saioak arrakastatsuak izan dira, eta gure helburu xumea bete dute: gaztetxoek sare sozialetako erreferente euskaldun batzuk ezagutu dituzte, sare sozialen erabilerari buruzko ohar batzuk jaso dituzte, eta, azkenik, euren kabuz euskarazko bideo eta antzerako edukiak sortu dituzte.

Aurrerantzean, ikasi dugunarekin, posible izango da Berbarok antzeko saioak egitea, edo martxan ditugun proiektu batzuetan halako edukiak txertatzea, gaur egun, gazteek sare sozialak asko erabiltzen dituztela ikusi ondoren. Argi dago esparru digital horretan eragin beharko dugula, euskararentzat basamortu baitira momentu honetan.



Euskara ingurune digitalera: Irratsaioak

Berbarok aspalditik izan du ingurune digitalean eragiteko nahia. Izan ere, ezinbestekoa da espazio horretan euskararen presentzia sustatzea. Helburu horrekin, aurtengo udaberrian martxan jarri genuen ingurune digitalean nola eragin erabakitzekeo dinamika. Zuzendaritza Batzordearekin egindako hausnarketa saio baten ostean, euskarazko irratsaioak sortzeko proiektu bat abian jartzea erabaki genuen. Hainbat formatu posible aztertu genituen, eta, bakoitzaren abantaila eta desabantailak aztertu ondoren,

irratsaioena iruditu zitzaigun aproposena. Sormenerako askatasuna uzten duen alternatiba bat da, eta durangarrek sortutako saioak izango direnez, tokikotasuna sustatzeko aukera ematen du.

Uda hasieran proiektuan interesa izan zezaketen herritar batzuekin batu ginen, eta gure ideien berri eman genien. Ordutik, apurka-apurka egitasmoa garatzen joan gara, eta talde batzuk dagoeneko prest daude euren irratsaio edo bestelako multimedia edukiak grabatzen hasteko. Asmoa da datorren urterako sarean

eskuragarri egongo den plataforma sortzea.

Nahiz eta Berbarok abiarazten lagundu, proiektua autonomoa izatea nahi dugu, eta parte hartuko duen talde bakoitzak askatasuna izatea gaia, iraupena, maiztasuna eta bestelako kontuak erabakitzekeo orduan. Helburua, hasieran aipatu bezala, Durangoko jendea euskarazko podcastak edo bestelako multimedia edukia sortzera animatzea da. Izan ere, espero dugu jende gehiago batzea, proiektuak aurrera egin ahala.

Ireder eta Martxel, Berbaroko lankide hasiberriak

Ireder Angulo eta Martxel Zubia Berbaroko gazte arloan dabilta lanean. Ireder urrian hasi zen, eta Martxel azaroaren amaieran. Biak izan dira gurekin hezitzaile, lehenago ere, eta orain fase berri bati ekingo diote. Galdera batzuk egin dizkiegu aldaketa nola bizitzaren ari diren jakiteko eta hobeto ezagutzeko.

Noiz hasi zineten Berbaron hezitzaile gisa?

IREDER: Bigarren batxilergoan nengoen udan hasi nintzen hezitzaile, praktikari gisa. Aurretik, urte askoan zehar ume bezala joan izan naiz udalekuetara, finko zein ibiltarietara. Beraz, esan dezaket Berbarok hazten ikusi nauela.

MARTXEL: Nire kasuan, aurtengo uda izan da Berbaron hezitzaile aritu naizen lehen urtea. Lehen hezkuntzako ikasketak amaitu berritan sartu nintzen Udan Olgetaneko taldera.

Nolakoa izan da esperientzia hori eta zer eman dizue?

I: Oso ona. Hezitzaile lanetan udaleku zein egonaldiak ezagutzeko aukera izan dut: Ibiltari txikia, Ikastolako egonaldiak, Udan olgetan, Udaberrian olgetan, Gurean, Itzartu... Aurtengo udan proposamen berri bat egin zidaten, ibiltari txikiko koordinatzailea izatea. Esan beharra daukat hasieran bertigoa sentitu nuela handi geratuko zitzaidala uste nuelako. Edozelan ere, egunek eta asteek aurrera egin ahala, eta taldea zein programazioa osatzen joan ahala, seguru sentitzen hasi nintzen. Udaleku bukaeran esan nuena pentsatzen jarraitzen dut: bizi izan dudana udaleku onenentzariko bat izan da.

M: Egia esan esperientzia polita izan da, udalekuak hezitzaileon artean antolatu genituen, besteak beste, eta horrek norberaren motibazioetatik sortzera

eramaten zaitu, egindakoaz disfrutatuz. Haurrekin, familiarekin eta gainontzeko hezitzaileekin sortzen diren harremanak ere aipagarriak direla esango nuke. Laburbilduz, oso esperientzia ederra izan da.

Pozik al zaudete aldaketarekin? Zerk motibatzen zaituzte gehien haur eta gazte arloan?

M: Oso pozik. Gogotsu nago lanean hasteko, antolatutako ekintzetan haurrak parte hartzen ikusteko, baita elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko ere. Momentu honetan denak motibatzen nau, lankideek, proiektuek...

I: Momentuz oso pozik eta gogotsu nago. Urte hauetan guztietan jaso dudana, gazteei transmititzeko aukera izateak motibatzen nau, beste gauza askoren artean.

Esku artean dituzuen edo izango dituzuen egitasmoetatik, zein nabarmenduko zenukete?

I: Guztiak nabarmenduko nituzke, baina bat hartu behar badut, Gurean egitasmoa aukeratuko nuke.

Egitasmo oso indartsua iruditzen zait.

Atzerriko ikasleentzako aukera ona izaten da euskal kultura ezagutzeko eta integratzeko. Iaz, hezitzaile jarduteko aukera izan nuen, eta egitasmoa aberatsa zela iruditzen zitzaidan. Aurten beste ikuspuntu batetik ezagutzen nabil, eta egitasmo potentea da.

M: Udalekuek badute xarma berezi bat, baina momentuz, eta agian niretzako ezagunena delako, Durangoko Azokako Saguganbara egitasmoa da nabarmena.

Zer behar du Durangok, zuen ustez, euskaldunago izateko?

M: Euskara noizean behin komunikatzeko tresnatzat ulertzen duen durangar asko dagoela esango nuke, hau da, ez duela euskara bere sentitzen eta hori izan daiteke gakoetako bat. Ulertarazi behar diegu gure hizkuntza tresna huts izatetik haratago doan zerbait dela. Horretarako, Berbaro bezalako elkarrekin lana garrantzitsua da, haur eta gazteengan eragiten baitu.

I: Nire ustez, garrantzitsuena euskaraz dakigunok erabiltzea da, eta ez dakitenak euskara ikas dezaten bultzatzea eta animatzea. Dakigunok erabiltzen ez badugu, jai daukagu.



Bueltan da Itzartu

Ikasturte berriarekin, Itzartu egitasmoa martxan jarri dugu, azaroaren 20an egin genuen lehenengo ekintza. Taldea sortu genuen eta hezitzaile gehiago batu dira taldera. Helburua ideia eta esperientzia berriak elkarbanatu, eta, horietatik abiatuta, ekintzak sortzea da. Itzartuk dinamika berdinarekin jarraituko du ikasturte honetan, 10- 14 urte bitarteko gazteentzat ekintzak egingo ditu hilean behin, euskarazko aisialdia eraikitzeko helburuarekin.

Esan bezala, lehenengo ekintza azaroaren 20an egin genuen, eta neguko hotza jada heldu dela ikusita, "chef" gazteak bueltan etorri dira. Sukaldaritza saio batekin hasi dugu denboraldia. Denon gustuak asetzeko, napolitanak, "paniniak" eta koktelak egiteko aukera izan zuten gaztetxoek. Horretarako, 16:00ak eta 19:00ak bitartean elkartu ginen Behargintzan. Hiru txokotan banaturik egin genituen errezetak: gela baten "paniniak" kozinatu genituen, beste batean napolitanak eta hirugarrenean koktelak. Hiru orduak ondo aprobetxatuta, gela bakoitzean ia ordubeteko tartea izan zuten nahi zituzten osagaiak erabiliz, produktuak osatu eta dastatzeko. Egun horretan gutxi bazkaltzea gomendatu genien, eta bai asmatu ere, ekintzaz gehiago gozatu ahal izan baitzuten horrela.

Ikasturte honetan, betiere Covid-19ak uzten baldin badigu, aurreko urtean egin ez ziren "egun sorginduak" berreskuratzea da asmoetako bat. Gainera, horrekin batera beste ekintza asko egiten ahaleginduko gara: eskulanak, zinema saioak, jolasak...

Gogotsu datoz hezitzaileak, pilak kargatu, hau hasi besterik ez da egin eta!

Euskararen telefonoa ipini du udalak abian

Herriko merkatari, ostalari eta zerbitzuek **Euskararen telefonoa** jo ahalko dute egunero sortzen zaizkien zalantzak argitu eta itzulpenak eskatzeko. Asmoa da komertzio edo taberna bat duen edozein herritarri berehala erantzutea. **630474332** telefonora deituta edo Whatsappa bidalita, ahal denik eta arinen erantzungo diote.

Zerbitzua hobetzeko proposamena egin zuen Berbarok, batez ere itzulpenekoa errazteko, eta beste urrats bat egin gura izan du udalak

Izan ere, hogeitaz urtetik gora daroa herriko merkataritza, elkarte eta gainontzeko eragileei euskara zerbitzuak eskaintzen, itzulpenez gain, dirulaguntzak, bekak eta aholkularitza.

Bizi dugun aro digitalera egokitzea garrantzitsua ei da denontzat. Horrela izan beharko luke euskararen erabilerari dagokionez ere, garrantzitsua eta ezinbestekoa; egokitzea bai, entitateak denontzat erakargarri izan daitezen, goazen taberna, denda edo txokora goazela, eroso sentitu gaitezen, euskara badelako.

EUSKARAREN TELEFONOA

630474332

gukeuskeraz@durango.eus

Larrosa eta Arantza

Larrosa

Larrosa, baina larrosa sorta izan dadila oraingoan Anboto astekariaren urteguna ospatzeko. Azaroaren 9an bete du urtemuga, 20 urte.

Urte hauetan guztietan ez du kompetentziarik izan, bakarrik egin du ibilbidea, tamalez. Egon badaude beste tokiko hedabideak, jakina, baina euskaraz ezer gutxi idazten dute; euskarak ez du lehen-tasunik

Zorionekoak gu, barikuro, euskara hutsezko paperezko edizioa eskuragarri dugulako, eta sare sozialetan egunero.

Eskerrik asko, ekipo, bulegoan, kanpoan, kaleetan zehar karroarekin, ezkutuan, eta ez hain ezkutuan, proiektua babesten duzuenoi. Guztiok beharrezkoak eta ezinbestekoak zarete.

Arantza

Aho bete hortz edo begiak zabal-zabalik dituen emotikono aurpegia geratzen zaigu ETB2k euskal hiztunak, euskaldun peto-petoak, euskara modu naturalean egunerokoan erabiltzen dutenak, gazteleraz berba egiten jartzen dituenen. Ze nezesidade!

Arrotza bezain mingarria egiten zaigu euskara modu naturalean entzun beharrean, inposatutako hizkuntzan berbetan entzutea. Zergatik egiten duzue hori, ETB?